

ESKALADA tailerra

Eibarko Udalak eskaladan inguruko tailerra antolatu du kirol ikusgarria honetan murgiltzeko.

Tramitatzailea: Haurreria eta Gazteria

Hartzaileak: LH 3. eta 6. mailakoentzat

Ikastaroaren prezioa:

5€ (Eibarren erroldatuak)

10€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:

• **Elektronikoki**, udal webgunetik: www.eibar.eus
Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Presentzialki, PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Non: Ipurua Kiroldegian

Datak: Urtarrilak 12, 19 eta 26

Ordutegiak:

Txanda 1: 16:45etatik 18:15etara

Txanda 2: 18:15etatik 19:45etara

Egun eta txanda bakarra aukeratu beharko da.

Ikasle kopurua: gutxienez 4 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 6 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Eskaera egiteko epea: abenduaren 16tik 30era

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), 2020ko urtarrilaren **8an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: urtarrilaren **8an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus), egongo da urtarrilaren **8an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: talde batean izena emandakoen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldeetan izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleez osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzai atxikituz eta ikastaroa jasoko duten ikasleen adin bereko taldeari lehentasuna emanez.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan